

CARLOS CLAVERIA

EUSKAL ATSA NAFARROA'N

Nafarroa'rentzat eguna berexia izan da aurten-go Urriaren irugarrena. Iru Erregeen arrotz-etxean aurkeztu du Carlos Claveria napar idazle ospetsuak bere azken liburua: "ABERZALETASUNAK EUN URTE NAFARROA'N". Erdaraz idatzia dago liburu au.

Utsune aundi bat betetzen du gaur. Aberzale giro ederra agertzen zaigu Nafarroa'n.

Liburu onek oñarri sendoak agertzen dizkigu. Gauza jakingarriak ikasten ditugu. Bat pozgarria: "LA GAMAZADA" delakoa. Nafarroa osorik batu eta altxa zen Madrid'ko indarkeriaren aurka (1893).

Bertze berria, negargarria: Lizarra'ko Estatu-tuari ezezkoa eman zion Nafarroa'k. Gaur oraindik gertakizun orrek min ematen dio. (1931).

Bi ekintza oien itzalean bizi gera. Giro orretan sortu ta azi da Nafarroa'ko aberzaleatasuna.

Idazleak dioenez, izen batzuek izarren antzera anitz eman zioten Nafarroa'ri. Ongi ikasi bearrak ditugu: MANUEL IRUJO, ARANZADI ETA JOXE AGERRE.

Gizaldiaren asieran bertze izar aundi bat euki zuen: Aita Evangelista de Ibero, gizon langillea ta aberzale sutua. Gazterik it zen.

Bertze aunitzen artean ortxen dago, aritzaren antzera, Santiago Kuntxillos; Aldundiko idazkaria.

Liburu orretan ezagutzen ditugu iru batzoki garrantzitsuenak: Lizarra'koa Fortunato de Aguirre'rekin, Tafalla'koa Dosandabaratz'ekin eta Agoitz'koa Leopoldo Garmendia'rekin.

"EUSKALERRIKO ADISKIDE" taldeari garrantzi andia ematen dio. Franco bizi zala oraindik berpiztu zuten berriz euskal atsa Nafarroa'n. Urrats oiekin asita zabaldu da gaur arte erri aunitzetan euskal indarra. Geroxeago asiko dira gauzak nasten.



Bi zanbakiko liburu mardul onen egillea ezaguna dugu Nafarroa'n. Ez da nolanaikoa. CARLOS CLAVERIA idazle langillea dugu, gizon argia, aberzale ona, euskaldun ziñezkoa. Bereratzu liburu ditu argitaratuak, baita ere milla ta irureun idazlan. Gaiak berriz Euskalerrikoak.

Gure idazlea Iruña'n jaiotzen da 1924'garren urtean. Amalau urtekin sortzen zaio euskal zaletasuna. Aita Eskolapioekin ikasten ibilli zen; oietako batek Euskalerriko maitasunaz kutsatu zuen. "Komerzio" ikasketak egin ondotik lanean beti jo ta ke sendia aurrera ateratze arren, baita ere idazten aspertu gabe. Euskal giro ederra zabalitzen ibilli zaigu beti. Arturo Kanpion'en jarraitzailea dugu, "EUSKALERRIKO ADISKIDEEN" zuzendaria izana. Baita ere, Franco'ren ondotik Nafarroa'ko Batzar Nagusian erriaren ordezkaria izana.

Idazle ona dugu. Bere ustez, idatzitako liburuetatik ederrak NAFARROA'KO ERRESUMAREN KONDAIRA da bat, eta bertzea azken liburu; auek ditu atsegiñenak. "ABERZALETASUNA EUN URTE NAFARROA'N" liburuia igazko urteko lana izan da.

Gure idazle onek maite du euskara. Ikasitakoak erabiltzen ditu. Ba ditu ere sei olerki euskaraz egiñak. Nai nizkioke argitaratu. Urrats oiek emanez Nafarroa euskalduntzen goaz. Gaiak ikusi bear eta izkuntzaren lotura.

Gure gizaldi onetan CARLOS CLAVERIA; IDAZLE TA ABERZALE BEZALA Nafarro berriaren langille onetakoa dugu.

Ezin aztu: aipatu ta goratu dugun azken liburuia, etorriko diren ikerlariaren oñarri berexia ta bearrezkoa izanen da. Eskerrikasko.